

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Uztailak 6 71. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

JOSE MARI ORMAETXEA:
"Kooperatibak errentagarri
izan behar dira"

*Saski-Naski
lehiaketa*
**AZKEN
SARI
HANDIA**



Homosexualitatea kalera

**12
URTE**

LORAMENDI:  KIROLAK

Camping, Hondartza eta aisialderako moda

DENA KIROLA EGITEKO

SALGAI ATBren KAMISETAK



Gure kamiseta eskuratu nahi baduzu, uztailaren 12tik 26ra bitartean, salgai egongo da ATBren bulegoetan. Zatoz.

Ordutegia: arratsaldeko 5etatik 6etara.

Prezioa: 2.000 pezeta.

Galdetu Josune edo Karmelegatik.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Eukeni
Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,
Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalaitakoan, ASA Taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.



Carta del clero guipuzcoano al Exmo. Sr. Obispo de S.S.

Horrela titulatu zuten 1950eko abuztuan Gipuzkoako apaizek, izen-datu berria zuten Font i Andreu gotzaiari igorritako eskutitza. Apaizek eurek zioten bezala, klandestinitatean izenpeturiko gutunak apaizgoarena ez ezik, herri xehearen kezka ere azaltzen zuten. Sei orrialdetan zehar, urte haietan Euskal Herri osoa jasaten ari zen zapalkuntza fisiko eta espiritu-ala salatzeaz gain, aro itxaropen-tsuago baten eskabidea egiten zioten sinatzaileek gotzai katalandarrari.

Berrogei urte eman dira ordudunik eta euskal gizartea koordinada desberdinetan ari da bere geroa eraikitzen. Kalamitateak ez dira betiko eta diktadorea ohean hil zen arren, haren heriotzak ez zuten erregimenaren iraupena adierazi. Gure irakurle askok -gazteenek- ez dute, idazten ari naizen gertaera honen gaineko erreferentziarik izango. Normala, denboraren poderioz bizitzapenik hurkoenak ere ezabatu egiten dira eta. Areago, gertaerak eurak bizi izan ez direnean.

1950ean, gerra amaitu zenetik hamaika urte igaro eta gero, borrokaldi latzaren ondorioak azal gainean nabari zitezkeen, gordin- gordin. Une hartan, Batikanoak beste gotzai arrotz bat inposatzean, euskal apaizek euren

ahotsa sentiarazi nahi izan zuten, herri-ixiltasun behartuarena ordezkaturan. Eta euskal historian zehar maiz gertatu bezala, kleroak aintzindaritza aurrerakoiaren testigua hartu zuen berriz ere, zapalkuntzaren aurrean herri osoaren oihua entzun arazteko.

Gipuzkoar kleroak ausardiaz idatziriko eskutitzean, garaiko politikaren morroi zen Elizaren jokabidea salatzen zuten; euskaldun artean gero eta nabariago omen zen antikerismoaren lehen aztamak eliz-erakundearen desbideraketa interesatuan aurkitzen zizuten abadeek. Hori zuzeneko hausnarketaren beharra aurkeztu zioten gotzaiari, bere ezintasunean sakon sufritzen ari zen elizkidegoa jainko eta giza eskubideetan errespetua izan le-
din.

Disgustu galanta jaso ei zuten Font i Andreu gotzaiak eskutitzaren berri izatean. Haren ustez, Jainkoaren kaudilloari egin lekiokkeen irainik arbuia-garrientzat hartu behar zen eskutitz hura...; gainera, Batikano eta espainiar gobernua konkordatoa sinatzear zuden: diktadorearen politika suntsitzaila bedeinkatuko zuten eliz-hitzarmen sakratua.

Francok aseguratua zuten palioa.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

*Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atearak*

Legarreko pabiloi industrialia
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

AURRERATZEKO

SF

AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

JOSTEKO

ARETXABALETA

UZTAILEAN

OIHAL BEHERAPENAK

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90
ARETXABALETA

Jo bai, baina nora?

Zuen azken erreportaian diozue-
nez, Arrasateko jende gehienak
Ekialderantz joko du datozen oporre-
tan. Nire lagunen artean ere, uste dut
horrela dela, gehientsuenek Afrika
eta Ekialde aldera egin nahi dute eta.

Nik ez dakit txikitan bezala, abuz-
tuan hondartza barik Epeleko erreka-
txoan ez ote ditudan egunak emango,
ea orduan harrapatu ez nituen karra-
marroak topatzen ditudan, ze aurtengo
nire haziendaren iharduna desas-
troso samarra izan bait da.

Baina ahal izango banu, ez nuke
Hego edo Ekialderantz egingo, Ipar
alderantz baino. Eskandinabia ez dut
ezagutzen eta benetan gustatuko
litzaidakidake Noruegako fiordoak
edota Suediako hiri eta herriskak eta
Finlandia eta Laponia ezagutzea.
Aurora boreala, hogeitalau orduko
egun eta gauak... en fin, amets
egiteko txoko horiek.

Beste noizbait izan beharko da.

E.L

Txakurren kakak

Pasa den astean, Erdikokaletik
behera nindoala, txakur kaka eder
bat zapaldu nuen. Egia esan, neure
pentsamenduetan murgilduta nin-
doan, baina gertaera hark oso amo-
rratu ninduen. Gertaerari alderdi ona
bilatzen saiatu nintzen, txakur kaka
zapaltzeak zorte ona ematen duela
esaten dute eta. Edozein modutan,
zapatari zerion kiratsak nire boron-
date on guztia zapuztu zuen. Espa-
loiaren koskan zapata garbitu eta
kalean behera joan nintzen, umore
txarra uxatu nahian.

Lehengo egunekoa, txakur kaka
zapaltzen nuen lehen aldia izan ba-
litz, ez nintzatekeen horrenbeste
haserretuko. Baina sarritan gertatu
zait txakur kakak zapaltzea. Ez dut
uste nire errua denik, txakurren ja-
been axolagabekeriarena baizik.
Txakurrak izateari ez deritzot gaizki,
bazter guztiak zikintzeari ordea, bai.

Arazoa konpontzeko zer egin
daitekeen ez dakit, baina inon en-
tzun dut txakur kakak batzeko pol-
tsatxoak saltzen dituztela. Beraz,
txakurrak dituzten arrasatearrei ho-
rrelakoak erabiltzen has daitezela
gomendatuko nieke, beste guztiok
mundutik zehar kakaztuta ibil ez
gaitezen

T.B

Zuzendari jauna


Azkenean trafikoari irekita ikusi
dugu zorioneko saihebidia. Ordua
zen, dagoeneko denok nazka nazka
eginda geunden eta, kamioi eta ko-
txeen kirats jasan ezina irensteaz.
Eta honekin ez dut aditzera eman
nahi, saihebidia ireki zenetik ko-
txeak ikusi behar ez ditugunik.

Saihebidia zabaldu ondoren,
Bizkaia aldera doan trafikoari eman
behar omen zaio itenbidia. Epeletik
zehar errepide berria zabalduko
omen dute eta horrela arazoa nola-
bait konponduko.

Hala ere, errepide kontu hauek
entzuten ditudanean, herriak pertso-
nontzat, kartzela txiki bihurtzen ari
direlako susmoa datorkit. Duela
30en bat urte, Aretxabaletara oinez
joatea, munduko gauzarik errazena
zen. Gaur egun, aldiz, ezustez bete-
tako abentura, edozein izkinatan
kotxe batek harrapatuta bizia gal
genezake eta.

Errepideak egitea ondo inuditzen
zait, baina non ibiliko gara oinez-
kook? Inori ez al zaio bururatuko, oi-
nezkoak ibiltzeko errepideak egitea.
Badirudi ezetz, ni behintzat amets
eder bat besterik ez delakoan nago.

K.Z




Udaran zer nahiago duzu, mendia ala hondartza?



Mari Pilar Garcia
(ikaslea)

Egia esan, biak. Bietara joaten naiz, ez daukat zaletasun berezirik.




Juan Carlos Alvarez
(langilea)

Mendia, gehiago gustatzen zait. Lasaitasuna aurki zenezake eta ez dago jende pilatzerik.



Alberto Velasco
(langilea)

Orain ez naiz inora joaten, soldaduzkan nago eta. Edozein modutan, hondartza mendia baino nahiago dut. Giro hobea egoten da.




Nélida Arguiz
(etxekoandrea)

Azken aldian inora ere ez, etxean arazoak ditut eta. Edozein modutan, etxetik irteteko aukera izanez gero, mendira joango nintzateke.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

KANPAIA

erretegia

Sukaldari arrasatearrak
Meagara bidean. GETARIA Tfnoa: 83 04 40

Memesa

79 42 22

URRIN

Urbarri Etorbidea 22, Tfnoa: 79 95 24

**KAZOLATAN
ESPEZIALISTAK**




BELUN
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------

6 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Cazador blanco, corazón negro". 7 eta 9.30etan. Novedades: "Corazones de media-noche". 10.30etan.
- Bertso afaria. AED elkarteak, gaueko 9.30etan.
- Donostiako Kontserbategiko Ballet Taldearen emanaldia. Gaueko 10.30etan, Monterron parkean.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

7 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Cazador blanco, corazón negro". 5, 7.30 eta 10.30etan. Novedades: "Corazones de media-noche". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Antzerkia: Geroa taldeak "La piel prestada" antzezlanak aurkeztuko du. Monterron parkean, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Morales. San Andres.

8 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Cazador blanco, corazón negro". 5, 7.30 eta 10.30etan. Novedades: "Corazones de media-noche". 5, 7.30 eta 10.15etan.

- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

9 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Cazador blanco, corazón negro" 5, 7.30 eta 10.30etan. Novedades: "Corazones de media-noche". 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Español. Iturriotz.

10 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Cazador blanco, corazón negro". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

11 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

12 OSTEGUNA

- Zinea: "Willit" pelikula ikusteko aukera, Monterron parkean, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina.

IRTEERAK

- **Leintz bailarako 3. itzulia.** Arrasate - Kruzeta - Jarindo - Arlaban - Leizargarate - Aumategi - Degurixa - Urkulu - Arrasate. Leizargarateko aterpean hamarretakoa. Irteera uztailaren 8an, goizeko 7etan. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta.

IKASTAROK

- **Muntaia elektromekanikoak.** Deba Garaiko Udal Elkarteak antolatuta. Tfnoa: 79 04 59.
- **Ostalaritzako teknikaria.** Oñatin. Deba Garaiko Udal Elkarteak antolatuta. Tfnoa: 79 04 59.
- **Tekfor ikastaroa.** Oñatin. Deba Garaiko Udal Elkarteak antolatuta. Tfnoa: 79 04 59.

ERAKUSKETAK

- **Zeramika eta pintura ikastaroetako lanen erakusketa.** Monterron kultur etxean, uztailaren 16ra arte.

BEKAK

- **Arrasateko toponimia jaso eta finkatzeko beka.** Eskaearak aurkezteko epea, uztailaren 20a. Arrasateko Euskara Zerbitzuak zabalduko denaldia.

LEHIAKETAK

- **Jose M^o Arizmendarreta V. Lehiaketa.** Gaia, "Egungo gizartea diruaren menpeko". Deba Garaiko Ikasleei zuzendua. Lanak bidaltzeko azken eguna azaroaren 6a. Gizabidea fundazioak antolatuta.

Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurria egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.

Poliza aintzindariak.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK



“ Mundu osoko ikerlariak horrelako zenbait galdera egin diote euren buruari, zeintzuk izan diren Euskadin kooperatibaren mugimendua sortu ahal izan duten arrazoiak, bai eta zergatik sortu den biolentzia politikoa ere. Eta planteatu daiteke biek sorburu bera dutela.

Elkartasun teknikoak, erregimen faszistaren mehatxua, kristau-baloreen eragina eta Euskadiko base-rrigune edo ia baserrigune direnetan klase-borrokaren garrantzi txikia edo eskasa izan daitezke berrogeitamarreko hamarkadaren amaieran kooperatibismoa nahiz borroka armatuaren sorrera azal lezaketen arrazoiak batzuk.

Gorronagoitia, Larrañaga eta Ormaetxea jaunek euren burua gizarte-aldaketaren “misiolari” aitortu dute, ETako ekintzaileak uztarpetze politiko baten “salbatzaile” agertzen diren bitartean. Kooperatibak aldaketa enpresa kapitalistan ezinezkoa zelakoan jaiotzen ziren; borroka armatuaren aldekoek sistemak aldaketarik egiten uzten ez duen ziurtasunaz ekiten diote bideari.

Eguzki bereko gerizpe bi dira. Euskal kooperatibismoa eraikuntza, inguruarekiko komunikazioa eta desideologizazioa da; borroka armatua suntsidura, bakardadea eta hiperideologizazioa. Lehenak 23.000 lanpostu sortu du. Besteak 600 hildako baino gehiago eta langabezia sortzen lagundu. Jose Maria Arizmendiarrietak, euskal kooperatibismoaren sortzaileak, ez zuen ontzat hartzen biolentzia eta estu eta larri hil zen, ETaren estrategia kooperatibaren interesetarako eta Euskadirentzat kaltegarriak zirela konbentziturik.

(Amatiñok Deia egunkarian)

Zein prestaketa jasotzen dute emakumeek haurdunaldian zehar?

Guk Eskualde Ospitalean, orain urtebete arte, azken hiru hilabeteetan baino ez genizkien klaseak ematen. Azken urtean, berriz, lehen hiru hilabeteetan ere klaseak ematen hasi gara, higiene eta elikaduraz azaltzeko batez ere. Hau da, zer jan behar duten, zenbat orduz lo egin behar duten etab. azaltzeko.



Azken hiru hilabeteetan, klase teorikoak eta praktikakoak jasotzen dituzte. Jende gehienak erditze ordu-rako prestatzen ditugula uste du, baina hori garrantzitsua bada ere, beste gai batzuk ezagutu behar dituztela uste dugu. Hala nola, haurdunaldia nolako den, jaiotze berriak behar dituen zainketak, erditu ondoren zer egin behar den, etab.

Jendeak, umea izatea gauza biologikoa denez, emakumeak zer egin behar duen badakiela pentsa dezake, baina umea izatea ardura handia denez, lagundu egin behar zaie.

Bestalde, hona etorri eta euren artean hitz egiteak asko laguntzen die. Askotan, haurdun dagoen emakumeak sortu zaizkion arazoak, bereak bakarrik direla pentsatzen du. Hona etorri eta beste emakumeek ere, berak dituen arazo berdinak dituztela konturatzen da.

Erditze garaian, eurak zer egin dezaket, zein baliabide izango duten eta ospitalean zer egingo zaien azaltzen zaie.

Nolabait, euren artean hitz eginez eta ematen dizkiegun azalpenekin, izan ditzaket beldurrak uxatzen laguntzen diegu.

*Txaro Arregi
Eskualde Ospitalean amatasunerako
prestakuntzarako arduradun*

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

MUSAKOLA

OSTATUA

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

*Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tinoa: 79 20 50*

Ballet-a Arrasaten

Asteburu desberdina kultur ekintzei dagokienez

Dantza zaletuok gaur, gehiegitan ikusteko aukera ez dugun ikuskizunaz gozatu ahal izango dugu. Donostiako Kontserbategiko ballet taldeak, eguraldiak lagun, Monterron parkean emanaldia eskainiko du.

Ballet taldea 1973an eratu zen, balleta Euskal Herrian sustatzeko eta gazteak dantzara bultzatzeko helburuz. Taldearen helburuak gauzatzeko, sortu zenetik Euskal Herriko herri ugarian emanaldiak egin ditu, balleta hiriburuetako pribilegio izan ez dadin.

Taldeak, herritarrengana hurbiltzeko, gure herriko elementuak sartu



ditu ikuskizunean, hala nola, euskara eta bertako musika tresnak .

Honez gain, koreografia ulerterrazak egiten saiatu izan da. Hala ere, musika egile klasikoek ere baliatu izan da.


Edozein modutan, dantza gogoko ez duenak, antzerkia ikusteko aukera ere izango du asteburu honetan; Geroa taldeak, Xabi Puertaren, "La piel prestada" antzezlan eskainiko du, larunbatean Monterronen. Antzezlan hau, Paco Obregonek zuzendua da eta Zutoia Alarcia, Lourdes Apilanez eta Paco Obregon aktoreek lan egiten dute. Gogoratu eguraldi txarra eginez gero, emanaldiak Amaian izango direla.



San Pedroak Eskoriatzan

Udaran sartu eta festa giroa nagusitu da bailaran. Eskoriatzak hartu zion txanda Arrasateri eta joan den asteburuan herriko jai nagusiak ospatu zituzten. Festak ostegunean helduen danborradarekin hasi eta igandean, koadrilen egunarekin amaitu ziren. Herriko neska-mutilak herri-bazkariarekin ospatu zuten eurei eskainitako eguna. Ez zen gazte gehiegi animatu herri-bazkarian parte hartzera, baina honek ez zituen goibeldu bertan bildutakoak.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE

Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

ORTZI erretegia

Angiozar auzoa

Tfnoa: 76 22 68

BERGARA

■ II. Arte Hamabostaldia

Arte Hamabostaldiaren II. ekitaldia, iraileko azken bi asteetan izango da. Aurtengo ekitaldiak, hiru milioiko aurrekontua izango du. Hiru milioiak, Hamabostaldirako azpiegitura egokitzeko eta artistei ordaintzeko behar izango dira. Bost artistak hartuko du parte. Hamabostaldian zehar artistek egindako lanak Udalak erosiko ditu. Lan bakoitzaren truke 200.000 pta. ordainduko du Udalak. Artista bakoitza, arte-esparru ezberdinetakoa izatea nahi da.

■ AEDren tonbolako zenbaki sarituak

AED elkarteak, San Juanetan jarrri zuen tonbolan, ondoko zenbaki hauek lortu zuten sari berezia:

Larunbatean, hilak 23, 3.053a (multiservice), 869a (supermixe-a) eta 1.986a (udaiazpikoa) lortu zuten.


Igandeko zozketan berriz, sari-tuak honako hauek izan ziren: 3.466a (garbigailua) eta 5.506a (udaiazpikoa).

Astelehenean osterak hauek izan ziren zenbaki sarituak: 12.052a (camping denda) 7.850a (tostadorea) eta 4.020a (urdaiazpikoa).

Eta asteartean, hilak 26: 2.413 zenbakiak mendiko bizikleta eta 6.440 zenbakiak urdaiazpikoa.

■ Auzolandegirik ez

Aurreko urtean ez bezala, aurtengo udan ez da inolako auzolandegirik izango Arrasaten. Lezetxikiko inguru arkeologikoa garbitzeko eskaria luzatu zen, baina Eusko Jaurlaritzak ez zuen onartu. Ondorioz, Eskoriatza eta Oñatin antolatuko dira Deba Garaiari dagozkion aurtengo auzolandegiak.



S. F. Xabier ikastola 2. zikloan

Datorren urtean, ikastolako irakasleak EPPra

Irakaskuntzaren erreformak ekarriko dituen aldaketei aurre egiteko S. F. Xabier ikastolak bigarren zikloa ematen hasiko da, hau da, 16 urte arteko irakaskuntza bere gain hartuko du. Logse delakoaren arabera, irakaskuntzaren lehen zikloa 12 urte artekoa izango da eta bigarrena 16 urte artekoa. S. F. Xabier ikastolak garbi ikusi du, 12 urte arteko irakaskuntza bakarrik ezin eman dezakeela eta irakaskuntza eskaintza 16 urte arte zabaltzeko pausoak emateari ekin dio.

Eskola Politeknikoak bestalde,

16 urtetik gorako irakaskuntza jorratu nahi du eta beraz, gaur egungo FP1 Ikastolaren esku utziko du. Hau dela eta, Ikastola eta Eskolaren artean akordioa sinatu dute, maila horiek ikastolaren esku uzteko. Datorren urtean ikastolako bi irakasle lehen eta bigarren REM klaseak emango dituzte Eskolan. Euren asmoa, poliki-poliki ikastolak klase horiek bereganatzea da.

Bestalde, aste honetan bertan Hezkuntza Sailean maila bi horien titularitatea eskuratzeko tramiteak egiten hasi da S. F. Xabier ikastola.

■ Betiko Udaletxera

Arrasateko Udaletxeko zerbitzu guztiak dagoeneko betiko Udaletxean daude. Aldaketa ostegunean egin zen eta hau dela eta egun horretan Udaletxea itxita egon zen.

Gogoratu bestalde, uztailean Udaletxean goizez baino ez dela lan egiten eta eguerdiko ordubiak bitartean ditu irekita bulegoak.

■ EAJk erasoia salatu

Ekainaren 27an, Batzokian, ezezagun batzuk pintadak eta fatxadak zenbait kalte egin zituzten. Arrasateko EAJk kaleratu duen ohar batean, gogor salatu du erasoia. EAJren ustez, horrelako ekintzek gure gizartean enfrentamendu giroa lortu nahi dute. Bukatzeko, beren lanarekin aurrera segituko dutela dio EAJk.



GATZAGA
Jatetxea

Arrasateko
jatetxea
Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53

ZUBIZARRETA
TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE



Arantzazuko Seminarioa

Arantzazuko Seminarioa itxita

Gizartearen aldaketek bokazioetan ere eragin

Ikasturtea amaitzearekin batera itxi egin ditu betirako Arantzazuko Seminarioak ateak. 1968. urtean eraiki zen eraikuntza ikaragarri hori ixteko arrazoi ugari izan da eta nagusiena gaur egungo gizarteak izan dituen aldaketak.

Aspaldiko asmoa omen zen Seminarioa ixtea, baina Kantauri aldeko frantziskotar guztien erabakia zenez, luze jo du zirt edo zart egiteak. Eraikuntzaren etorkizuna dago orain kolokan, Pello Zabalak garbi adierazi digunez, ez dute onartuko inondik inora Seminarioa negozio etxe bihurtzea edota militar tokia. Begi onez ikusiko lukete, aldiz, kultur munduarekin lotutako erakundereen batek bere gain hartzea.

50. hamarkadan, Seminario zaharra ikaslez gainezka zegoenez, eta jende asko bertan ikasteko prest zegoenez, berria egitea erabaki zen.

Frailegaitegi berriak bi eraikuntza ditu. Lehena, hiru solairukoa. Bertan sukaldeak, jangelak, hiru frontoi, ikasgelak eta zenbait patio ditu. Bigarrenak aldiz, lehen hiru solairuetan erabilera ezberdineko egongela ugari eta azken hiru solairuetan ikasleentzako logelak.

Seminarioak 70. hamarkadan izan zituen ikasle gehien, hirurehun bat. Azken urteetan oster, oso ikasle gutxi zegoen. Aurtengo ikasturtean, 7. eta 8. mailako ikasleak izan dituzte, denetara 30 ikasle.

Ikasleez arduratu diren zazpi irakasleek alde egingo dute Seminariotik, nahiz eta batzuk Arantzazun bertan geratu. Dagoeneko ikasleekin bokazio lanik ezin dela egin garbi ikusten duten Seminarioko arduradunek eta eskola arrunta izateko lekuri proposena ez denez, Seminarioak itxi egin ditu ateak.

Usteak uste...

Seguru nago inoiz ez dela inguru honetako hainbeste jende egon Bilboko Arriaga antzokian. Ziur nago ere, ez zirela Botxora joan Adelaide Negri soprano argentinarrak erakarrita, ezta Arriagako antzoki zoragarriak berak ere.

Han zeuden gehienak kooperatibistak ziren eta euren arteko aintzindariei omenaldi egitera joan ziren Bizkaiko hiruburura. Kooperatibismoaren Munduko Egunaren barruan antolatu zen omenaldia, Mondragoeko Talde Kooperatiboa sortu zutenei egin zitzairen. Horra hemengo horrenbeste jenderen presentzia han.

Omenduak ez ziren oso eroso sentitzen gorazarrea euren egiten zitzaielako. Horregatik, behin baino gehiagotan, larunbateko ohoreak Arrasateko kooperatibismoaren abenturaren txalupa hauskorrean sartu ziren guztiei egin behar zitzaieela adierazi zuten.

Arrasateko estiloaz hitz egiten denean hortik zehar, horrelakorik baldin badago behintzat, uste dut gizon hauek badutela zerikusirik horrekin. Enpresa eta lana egiteko estilo bat markatu dute, besteak bezain eskasa edo ona, eta guzti hori euren jatorria bat ere zapuztu barik.

Kooperatismoa zerbait hoberen bila dabilen sistema izango ez balitz ere, garai ekonomiko zorabiagarri hauetan gizon hauek hogeitapiku mila lanpostu sortu dituzte. Besteok badugu zer eta non ikasi.

Joxe Aranzabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12




IBARRA Garajea S.A.



Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

EBRO
NISSAN



Hilerrri berria aurrera

8.864 gorpu gordetzeko lekua eta 563 milioiko aurrekontua

Arrasateko Udalaren azken Góbernu Batzordeak, Udal Kanposantu berriaren oinarritzko proiektua onartu zuen. Hilerrri berria San Kristobalen eraikiko da eta denetara 8.864 hilobi izango ditu.

Kanposantu berria eraikitzeko aurrekontua 563 milioikoa da. Kanposantua amerikar erara egingo da, hau da, gorpuak lur-azpiko bobedetan gordeko dira eta kanpokaldean zelaiak ikusiko dira. 24.222 m²ko zabalera izango du eta hiru zatitan banatuta egongo da. Lehen zatian lau klaustro egingo dira, bigarren zatiak zirkulu erdia osatuko du eta

azken zatia, San Kristobal inguruan kokatuko da. Kanposanturako bi errepide zabalduko dira, Altamiratik eta Meatzerreka auzotik. Oinezkoak ostera, Monterron parketik joateko aukera izango dute.

Kanposantuaren sarreran, bi eraikuntza egingo dira. Lehenean, harrera gela, gorpu-gordailua, autopsia gela eta forensearen bulegoa egongo dira. Bigarren eraikuntzak berri, kontserjearen etxebizitza eta administradorearen bulegoa

Proiektua onartu eta gero, egin behar diren lanak eta bete behar diren epeak zehazten dihardute.

Danborradetako jantziak

Haur zein helduen danborradetan parte hartu dutenek, arropa itzul dezakete SUDCen lokaletan. SUD-Cek jakin erazi du, arropa biltzeak lan handia duela eta herritar guztiei beren laguntza eskatzen die.

Osakidetzak baimen berria eskatu

Osakidetzak Eskualde-Ospitalean premiazko berrikuntzak egiteko baimena eskatu dio Udalari. Berrikuntzak, X izpien gelan eta larrialdietarako gelan egingo lirakeke. Osakidetzak adierazi duenez, lan hauek ez dute zerikusirik Eskualde Ospitalea eta Anbulategia eraberritzeko planarekin. Udala berri, beldur da hau eraberritzearen hasiera ez ote diren aipatutako berrikuntzak.

JAIOTZAK

Unzalu Aldekoa *Garazi*. Ekainaren 16an.
Elorza Isazelaia *Txomin*. 22an.
Zub ikarai Orrillo *Deiane*. 22an.
Berriozabal Epelde *Jon*. 23an.
Sanchez Jurado *Jon*. 24ean.
Leo Rayero *Anais*. 27an.
Poyato Maiztegi Leire. 28an.

EZKONTZAK

Pablo Roman Moreno & M^a Antonia Garcia Tena. 23an Elizaz.
Julio Sierra Fernandez & Inmaculada Calvo Bañez. 23an. Elizaz.
Jose Miguel aguriendo Salaberri & Maria Lourdes Arriagi Ugalde. 24ean. Elizaz.
Alejandro Luarizaristi Ormaetxea & M^a Isabel Sierra Cabo. 30ean. Zibilez.
Ignacio Casares del Rio & M^a Teresa Duque Hernandez. 30ean. Elozez.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...
Jose Luis Higura: Kirurgia, basktomia...

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

SASKI-NA SKI

lehiaketa

Asteroko sariak



KOLTZA

Aranzabal Akobe
elektrogailuak

IRRATI-
-IRATZARGAILUA



OKIENDO
KIROLAK

ZAPATILAK



MELIA BIDAIAK

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT

Ikatz

argazki etxea



ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA



SARITUA



KOLTZA

Aranzabal Akobe

MAIDER MORRAS
AZPIAZU

ASTE HONETAKO
SARITUAK

EDURNE MARTINEZ
Irrati-iratzargailua

AITOR HERIZ AZKARGOTA
Bi lagunentzako afaria

IRAULTZA ALBERDI
Kirol zapatilak

IMANOL MARTINEZ
Argazki makina

MILA ESKER PARTE HARTU DUZUEN GUZTIOI



Luis Iriondo polifazetikoak ez zuen omenaldia galdu nahi izan eta Bilbon izan zen. Urteetan LKAn egin izan du lan.

Orain Zarautz eta Azkoitia artean bizi da. Zinema eta telesbista munduekin oso lotuta. Serie bat bukatu berri du telebistarako eta musika ipintzen ari filme bati.

Argazkian **Pureza Aranzabal** eta **Jose Mari Usatorrerekin** hitz egiten.



Berba samur eta beroak izan zituen **Alfonso Gorronogoi** aintzindariaren emazteenganako, "gure erabateko dedikazioak geure etxeetan sortu zuen ikaragarri hutsunea ezin hobeto eta sakrifizio handiz betetzen jakin izan zutelako". Purita Iturbek justu-justu eutsi zien malkoei.

Onorezko mahaiaren ertz batean, **Juan Luis Martinez Ordorika**, Lan Kontseilari ordea, **Mari karmen Galdos** eta **Jesus Larrañaga**, azken hauek senar-emazteak.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABAETA

URONDO
elektrizitatea



Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

VE ECUADOR

Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

LARRINGAN
auto gidarien eskola
KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



O menduei Solanoren eskultura bana oparitu zitzairen. Irudiak harrijasotzailea harria jasotzen erakusten zuen. Hain ziren eskulturak astunak, ezen hasieran behintzat, ezin izan zituizten bakoitzak bere lekura eraman. Artistaren errealismoa azkeneraino eramanda.



Jose Antonio Ardantza Lehendakaria ezin izan zen bazkarira joan, EAJren Batzar Nazionalaren bileran egon behar izan zuelako. Arriagara, berriz, joan zen eta bere aspaldiko lankideak agurtzeko aprobetxatu zuen. Argazkian, Jose Maria Ormaetxea agurtzen.



Adelaide Negri soprano argentinarrak Rudolph Nureyev ballet dantzari errusiarra ordezkatu zuen azken orduan, hark min hartu zuela eta. Bi zatiz osatutako egitaraua eskaini zien Arriagara joan zirenei. Txalo ederrak joso zituzten argentinarrak eta pianoan zegoen Roberto Negrik.



IRAKASLE ESKOLA

IRAKASLE ESKOLA. ESKORATZA

Magisterio Eskola honek zera jakin arazi du:

1990-91 IKASTURTERAKO
AURREINSKRIPZIO-EPEA UZTAILAREN 20arte ZABALIK
DAGOELA

Informazioa: Irakasle Eskola. Eskoriatza. Gipuzkoa Tfnoa: 943 - 79 04 40

Ordutegia: 9-13

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27



Bapatean, pasodoblearen aireek hautsi zuten larunbat eguerdiko giroa Portaloi inguruan. Entzun bai, baina ikusterik ez zutenek banda oso baten kalejira zela pentsa zezaketen. Ba ez. Dena lau ijitoren kontua izan zen. Batek txapela pasatzen zuen bitartean, argazkiko beste hiru hauek jo eta ke, organua, erriimoak eta tronpeta uztartzen. Badakite, gero, nola moldatu!



Pasa den apirilaren 28an, Rosa M^a Palacios eta Juan Jose Estebez ezkondu ziren Dorletan. Berandutxo bada ere, txoko honetara ekarri nahi izan ditugu senar-emazte gazteak. Aurrerantzean, mila zorion!

Jose Maria Tuduriren zuzendaritzapean, duela hilabete inguru ekin zioten *Santa Cruz apaiza* pelikula filmatzeari. Aste honetan hainbat eskena Gatzagan osatuko dituztela eta, joan den ostegunean extra bila etorri ziren gure artera. Deiak arrakasta gehiegirik izan ez zuen arren, batzuk ausartu ziren zinearen munduan lehen urratsak ematera. Adibidez, argazkian guapo-guapo ikusten dituzuen hauek. Zorte on!

AHIZKE

AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECElko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

**“Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago”**

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE



ETXE-AUNDI
Dastapen-menua
uztailaren 13rako

- Hegaluze freskoaren entsalada epela.
- Izokina Aosta Araneko erera.
- Bresseko usakumea perigordini saltsarekin.
- Madari karameluzaturiko hostorea.

3.100 pta. BEZ barne


Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

izen propioak

■ **Josemari Velez de Mendizabal**, 41, Aramaion jaiotako arrasatearra, Donostian izango den Euskal Literaturari buruzko kongresuan, "Euskal literatura exilioan", gaia jorratuko du. Josemari Enpresa eta Ekonomia Zientzietan lizentziatua da eta Ucem-Cerrajeran lan egiten du. Zortzi liburu kaleratu ditu; artikulugintan ere aritu da

■ **Jose Antonio Gay**, 19, arrasatearra, Eusko Jaurlaritzak, 510.000 pta.ko beka eman dio, atletismoa gara dezan. Jose Antoniok, Historia ikasten dihardu Gasteizen. Lasterketa ugari irabazi ditu, 1989an junior mailan Espainiako txapelduna izan zen eta aurtien Euskadiko txapelduna izan da.

■ **Idoia Alzola**, 24, arrasatearra, haur bibliotekari berria. Idoiak Geografia eta Historia ikasi zituen Donostiako EUTGn eta hau du bere lehen lanpostua. Arrasateko S. F. Xabier ikastolan eta Eskoriatzako ALMENen ikasi zuen Donostiara joan baino lehen.



Astlehenean abiarazi ziren AEDk antolatutako udaleku irekiak. 15 egunetako bi txandatan banatuta, sei eta hamabi urte arteko 380 neska-mutiko egongo dira 30 monitoren ardurapean. Zalantza barik, azken hauek makina bat lan izango dute, haurren jolas-gogoak asetzeko.

Hor ikusten dituzue *Saski Naski* lehiaketaren azken irabazleak. *Aranzabalen* irrati-iratzargailua **Paula Altuberentzat** izan zen. *Okendo Kirolaken* zapatilak **Santos Iriondorentzat**. *Ikatzen* argazki makina **Gaizka Unzueta**rentzat; eta azkenik, *Etxe Aundiko* afaria **Maite Olaberentzat**. On egin guztiei! ▶



AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun **garantia osoa!**

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia doan

Kontzesiño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

Sexu aukera ezberdinen bila

Traba ugari jartzen dizkiegu oraindik homosexualiei

Ekainaren 28an, Gay eta Lesbianen Harrotasunaren Eguna izan zen mundu zabalean. Arrasaten ere, beste horrenbeste.

Oraindik gaur, gizarteak sexu aukera ezberdinak naturaltasunez onartzen ez dituen honetan, gu errealitate hau barrutik bizi duten bi pertsonarekin elkartu gara. Gutxienekoa izenak dira; eman dezagun Andoni eta Miren deitzen ditugula.

Erreportaia honetan euren pentsamoldea islatu nahi izan dugu, eta era berean, gizarteak jartzen dizkien trabak ispilatu ere.

Mirenen ustetan, gainera, gizartea gogorra bada gay-ekin, are eta gogorragoa da emakume lesbiane-kin. "Neska asko ikusi ditut zapuztuak, presioa jasan ezinagatik".

Gay eta Lesbianek denetariko erantzunak jasotzen dituzte euren inguruan. "Hori bai, gehiengoak ez gaitu begi-onez ikusten oraindik".

Miren eta Andonik diotenez, jendeak ez du sexualitatea analizatzen, aztertzen. "Arauk datozen bezala onartzen dira, inondik inora kuestionatu barik. Heterosexualitatea lege, eta ondorioz, arau horretatik kanpo bizi garenok zikinkeria kutsuaz inguratzen gaituzte".

Halere, gizarteak eskuzabalarena egiten du, eta eskuzabaltasun horren izenean 'ghetto'ak onartu. "Egin dezatela nahi dutena, baina ez guztion aurrean".

Gay eta Lesbianek, euren aldetik, batez ere hiriburuetan egoten den azpi-mundu horretara jotzen dute espantsio bila.



Ekainaren 28an ospatzen da gay eta lesbianen harrotasunaren eguna

Homosexualitatearen aukera

Andoni gay-a da; Miren lesbiana. Bizitzaren une jakin batean, Miren beste emakume batekin oheratu zen. Esperientziak ez zion inolako traumarik sortu, alderantziz. "Gustora sentitu nintzen maite nuen pertsonarekin nengoelako".

Andoniren kasuan, beste hainbeste. "Aspaldi konturatu nintzen gizonetzkoak atsegin nituela, eta kitto".

Ez batak eta ez besteak ez dituzte gizartearen arau heterosexualak jarraitzen. Zergatik? "Sexu berdinekoekin izandako harremanek bete eta asetzen gaituztelako".

Maitasun kontuak dira; eta bien ustetan, sentimenduen munduan ez litzateke inolako mugarik egon behar. "Heterosexualitatearen aukera

onartzen den neurri berean errespetatu beharko lirateke beste aukerak ere, bai gay eta bai lesbiana izateko aukerak, hain zuzen".

Azken finean, bakoitza nahi duen bidetik abia daitekeelako zorientasunaren bila.

Inguruaren erantzuna

Andoni eta Mirenek badakite, ordea, gay edo lesbiana guztiek ez dutela berdin jokatzeko. Askok dira oraindik, edozergatik izate hori izkutuan gordetzen dutenak: familia, lagunak, lana...

Laguntasunaren garrantzia

Arazoak arazo, pozik daude gaur egun bai Andoni eta bai Miren. Bakoitzak bere bidea egokiro jorratzen ariteak ematen duen poztasuna.

Bide horretan, lagun deitzen zirenen askok eman diete bizkarra; "Sei-

"Jendeak ez du sexualitatea aztertzen. Arauk datozen bezala onartzen dira, heterosexualitatea lege bihurtuz"

nalea ez zirela benetako lagunak".

Beste askok uko egingo diote euren harremanak izateari, 'txarteltxo' jarriko ote dieten beldur.

Askok dira ere, ordea, euren izaera onartzen dutenak; aukera baten atzean pertsona dagoela ikusten daitenak, pertsona hori norekin

oheratzen den kontuan hartu gabe.

Itxiak garela euskaldunok

Euskaldunok ez omen gara oso trebeak maitasun kontuetan.

Andoni eta Mirenek komunikazio eza aipatzen dute. *"Lotsatiak edo, kasua da ez daukagula amodioari buruz aritzeko ohitura handiegirik. Senti-mentuak koadrilen zabaltasunean itotzen ditugu, taldearen babesean"*.

Egoera horretan, sexua tabua izaten segitzen du. Eta ondorioz, aukera ezberdinak segitzen dituztenei are eta traba gehiago jartzen dizkiegu.

Trabak eta trabak maitasunari.



Ahizpatasunaren irribarrea

Permisibitatearen tranpak

Espainiako Konstituzioak, munduko gehientxoena bezalaxe, argi uzten du ezingo dela inolako berezkeriarik egin arraza, erlijio, edo sexua direla medio; ondorioz, denok omen gara berdinak legearen aurrean.

Horrek permisibitatearen ateak irekitzen baditu ere, errealitatea zeharo ezberdina da.

Errealitate horretan, legeak izugarritzko hutsuneak ditu gay edo lesbiana bikoteen kasuan; ez errespeturik, ez inolako babesik. Ezkondu gabeko bikote heterosexualen egoera antzekoa bada ere, hauei behintzat ezkondu, eta traba horiek gainditzeko aukera gelditzen zaie.

Gay eta lesbiana hori ere ez.

Kontuak kontu, trenean bidaiatzerakoan, adibidez, gehienetan ezin dituzte bikoteen gelak erabili. Hoteletan, beste hainbeste.

Nahiz eta urte mordoan elkarrekin bizi eta harreman iraunkorra izan, nekez lortuko dute zerga-aitorpen bateratua egitea. Eta era berean, bikoteko

bati heriotza heltzen bazaio, bere lagunak ez du eskubiderik izaten jarauntzia jasoteko orduan.

Etxebizitza bila joaterakoan, auskalo zergatik, jende gehienak ez die pisurik alokairuan emango, euren izaera jakitun badira behintzat.

Eta lanaren mundua. Zenbaitek gay edo lesbiana dela izkatutako du, lanik gabe utziko dute beldur. Maisuak, andereñoak. Guraso gehienek ez lituzkete haurrak euren esku utziko.

Zer esanik ez, politikari, edo gizon-publikoek ez dute inoiz txintik ere esango, bestela akabo.

Aurreko harreman batean seme-alabarik izanez gero, banatzerako orduan homosexualak ez du normalean neska-mutikoen ardurarik jasoko.

Horiexek dira, hain zuzen, permisibitatearen tranpak; ez dago zuzenki zigortzen duen legerik, baina ez eta eskubiadeak ziurtatzen dituenik ere.

Horrela, azken urteotan horrantz abiatu da gay eta lesbiana mugimenduen borroka, legearen hutsuneak betetzera hain zuzen.

Benetako berdintasunaren bila.

ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

BRANKA

jatetxea

Eguneko menua eta karta

Kooperatibak errentagarri izan behar dira

Jose Mari Ormaetxea

Usatorre, Larrañaga, Ortubai, Gorroñogoitia eta Ormaetxea, ditugu Ulgor, lehen kooperatibaren fundatzaileak. Makinatxo bat urte pasat u da ordutik eta gaur egun, bost haietatik bi bakarrik aurkituko ditugu kooperatibetan. Jose Mari Ormaetxearekin egon gara, kooperatiben iragana eta etorkizuna kontu diezagun.

— Zerk bultzatu zintuzte-
ten Kooperatibak sortzera?

— Lehen kooperatiba egin aurretik, Cerrajera aldatzen saiatu ginen. 1954ean Cerrajerak kapital-zabalkuntza egin zuen. Akzioen zati bat langileen eskuetan jartze-ko ahalegina egon zen, baina zuzendari orokorrak, ez zuen onartu. Ideia horrek huts egin zuenean, elkarte kapitalista gizatasun handiagoko zerbituetan ezin bihur zitekeela konturatu ginen.

Garai hartan, bestalde, sindikalgintzak ere traba handiak zituen. Beraz, ekintza leunez -akzioak erosiz- zein gogorrez -huelgak etab.- ezin zitekeen ezer egin.

Perito industrial ikasketak amaitu genituenean, enpresa egiteko ideia garatu genuen. Hasiera batean, fundizioa egin nahi izan genuen. Gero aholkularitza teknikoak egiteko zenbait proiektu ere garatu genituen.

Edozein modutan, horrela inora ez gindoazela konturatu ginen eta enpresa egitea erabaki genuen.

— Lehen lantegia Gasteizen kokatu zenuten...

— Enpresa sortzea ez zen bat ere erraza. Estatuak dena kontrolatzen zuen eta enpresa sortzeko baimena lortzea ia ezinezkoa zen. Baimena lortu ahal izateko, dirutza ikaragarria ordaindu behar zen.

Gasteizko egunkari batean, Otalora zeritzan atxalbaltar batek, enpresa traspas-

satu nahi zuela irakurri genuen. Gasteizera joan eta milioi erdiren truke enpresa osoa erosi genion. 1955. urteko urriaren 20an petrolioizko sukaldeak egiten hasi ginen Gasteizen.

Lau edo bost hilabete beranduago, Arrasatera etorri eta Ulgor dagoen lekuan lantegia eraikitzeko lehen harria jarri genuen.

— Zerk bultzatuta etorri zineten Arrasatera?

— Gure hasierako asmoa lantegia Arrasaten jartzea zen. Gasteizera zirkustantziek behartuta joan ginen. Baimenik ezin genuenez lortu, izan genuen aukera bakarra hartu genuen. Edozein modutan, Gasteizen oso gutxi egon ginen, Arrasatera lante-

Konpetitiboak izaten segitzeko, prest egongo nintzateke kapitalen enpresa bihurtzeko

giko kristalak jarri gabe etorri ginen eta.

— Non lortu zenuten kooperatiba abiarazteko hasierako kapitala?

— Egia esan, guk diru gutxi genuen, denon artean berrogeitamar milaren bat. 120ren bat lagun elkartu eta bakoitzak ehun mila pta. jarri zituen. 12 milioi batu eta diru horrekin hamasei pertsona hasi ginen lanean. Dirua irabazi ahal, garai hartan diru asko irabazten genuen eta, kooperatiban jende gehiago



Jose Mari Ormaetxea

sartzen joan zen.

— Fundatzaile guztiok jubilatzeke gutxi falta da. Ez al duzu uste, atzetik datozenek, kooperatibak alda ditzaizketenik?

— Aldatzea beharrezkoa da. Kooperatibek errentagarri izateari utz diezaioten diot beldur. Konpetitiboak ez balira izango, min handia jasoko nuke. Merkatu batua dator eta gu hango arauetara egokitu behar gara. Ez dakigu

merkatu handi batera nola egokituko garen.

Nire ustez kooperatibek erronka bikoitza dute. Lehenik eta behin, pertsonen eta ez kapitalen elkarteak izaten segitzea. Eta bestetik, konpetitiboak izaten segitzea, errentagarri izaten segitzea. Txarra litzateke, pertsonen elkarteak izaten segitzearen, konpetitibitatea galtzea.

— Prest egongo zinateke beraz, pertsonen elkarte errentagarritasunari sakrifikatzeko?

— Enpresa konpetitiboa izaten segi dezan kapitalen enpresa bihurtzeko prest egongo nintzateke. Nire ustez, langileen lanpostuak salbatu behar baldin badituz, ez dut ezer sakrifikatzen. Nire ustez, langileak langabeziara bidaltzea galerazi behar da eta konpetitibitatea galduz gero, hori gerta liteke.

— Eta kooperatibez zer geratuko litzateke orduan?

— Langileak geratuko lirateke eta langileak kapitala izaten segituko lukete. Gaur egun, pertsona bakoitzak boto bat du eta aldaketa egin behar bagenu, diruaren arabera izango luke botoa. Kooperatibetan 23.000 bazkide gara eta gero 23.000 kapitalista izango ginatke.

— Beno eta bukatzeko, zer deritzozu Bilbon egin behar dizueten omenaldiari?

— Ez dut bat ere gogoko. Gogoratu direnei eskerrak eman behar dizkiet, baina nik neuk, nire karrera jubilatutakoan lasai bukatu nahi dut. Zorrik izatea baino nahiago dut niri zor diezadaten. Beraz, ez dit bat ere graziazirik egiten. Egund txarra pasako dut.

Saskibaloia taldeak mailari eutsi

Txus Brizuelak entrenatzaile berria

Ez dira, ez, albiste makalak, azken asteotan saskibaloia mundutik heldu zaizkigunak.

Aipatu, alde batetik, Txus Brizuelak baietza eman diola datorren urtean talde seniorra entrenatzeari. Manu Morenorekin lehenengo mailako Taugres taldean lanean ari izan zen honek, zalantza barik aire berriak ekarriko ditu Arrasate Kirolak taldera.

Guztiok gogoratuko duzue bestalde, denboraldi bukaeran gure ekipoa mailaz jaitsi zela.

Pasa den astean, ordea, Donostiako Ondarreta taldeak uko zion saskibaloia bigarren mailan segitzeari. Arrasatearrek harremanetan jarri, eta eskaintza luzatu zioten gure taldeari eurek libre utziko duten plaza betetzeko.

Aukera aztertu ondoren, mondra-goetarrek baietza eman dute. Ondorioz, eta Federazioak eskatzen duen



tramitea konpontzeko, bi talde hauek bat egingo dute, eta Arrasate Kirolak bigarren mailan jokatzeko aukera paregabea izango du.

Etorkezun ederra, beraz, Mondragoeko saskibaloia entzatat. Mailari eusteaz gain, punta-puntako entrenatzailea izango dugu datorren denboraldian. Ez da apustu makala!

Mikel Zarrabeitia

Kaiku Gurelesa taldeko Mikel Zarrabeitia izan genuen garaile, Eskoriatzan korritutako XLIX. San Pedro txirrindulari txapelketan.

Proba honetan, bigarren mailako 108 afizionatuk hartu zuten parte.

Zarrabeitiak 51 segundu atera zizkien Asier Zabala (Baque), Asier Guenetxea (Kaiku), Eduardo Ramirez (Zoco) eta Jon Odriozolari (Fagor). Taldeka, Kaiku-Gurelesa izan genuen onena; bigarren postuan Lagun Aro-Fagor, eta hirugarrenean Zoco sailkatu zirelarik.

Jasone Diaz de Gereñu

22 urteko eskoriatzarrari, Eusko Jaurlaritzak 510.000 pta.ko beka eman dio eskubaloia jorra dezan. 14 urterekin hasi zen eskubaloian jokatzen, Almenen. Atezaina da, eta Hernani E.T.an ari izan da azken denboraldietan.

Azken hilabeteetan, gainera, Espainiako selekzio seniorrekin dago bilduta Madrilan, eta hurrengo Europako Txapelketan seguruenik jokatzeko aukera izango du.



Mountain Bikea, Pello Zabaletarentzat

Duela gutxi, Besaide Mendizale Elkarteak 'Mendi Astea 1990' antolatu zuen, eta egitarauaren barruan, baita zozketa berezia prestatu ere.


Ola Ostek emanda, Mountain Bike bizikleta ederra zegoen irabazlearen zain; eta irabazlea, hain zuzen ere, Pello Zabaleta izan genuen.

Argazkian ikusten duzue Pello bizikleta jasotzen, Ola Osteko jabea, eta Besaide Elkartearen lehendekaria den Ion Arregi lagun dituela.

**E D E L
TAPIZTEGIA**

**Gortina
Alfonbra
Koltza**

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

podiuma

Jon Ander Juldain, kirolaren beste alde

Kirolaren munduan bi pertsona mota daude; alde batetik kirolariak, noski. "Baina bestetik, beharrezkoak dira kirolariek lehiatzeko probak antolatzen dituzten pertsonak. Ni neu, hauetarikoa naiz".

Duela gutxi arte txirriinduren munduan ibili zaigu Jon Ander buru-belarri. "Hamazortzi urterekin hasi nintzen Club Ciclista Mondragones-en, karrerak antolatzen. Oraindik gaur lehendakaria naiz, hamazazpi urte eta gero".

Azken urteotan, gainera, Lagun Aro-Fagor afizionatu taldean murgildua egon da. "Dorletako Ama Ikastetxea lan ikaragarri ona ari da egiten, eta laster jasoko dira emaitzak. Hor daude Xabier Lazpiur, Iñigo Roldan, etabar, hantxe egin diren mutilak. Dena den, afizionatuen mundua profesionalismotik geroz eta hurbilago dagoen neurrian, buruhausteak areagotu egiten dira, taldeen arteko borroka zikindu, ordu askoz gehiago eman behar... Arrazoi horiek medio, ardura utzi nuen".

Jon Ander ez da, ordea, geldirik egotekoa. "Jose Mari Balzategik deitu zidan; jendea behar zuela saskibaloia aldea lan egiteko, eta ni zuzen barrura".

Horrela, jo eta ke dabilta datorren denboraldia prestatzen. "Proiektu oso serioa landu da. Mailaz jaitsi zenean moralak lurrera etortzeko arriskua egon zen, baina au-



rrera egin dugu. Alde batek, Txus Brizuelari zuzendu gintzaizkion, gure asmoak aurkeztuz. Eta ez da txantxetako egitasmoa izango, punta-puntako gizon honek xoxik ere kobratu gabe gure taldea eramateko baietza eman duenean".

Bestalde, hor dago Ondarreta taldeak izan duen jokaera. "Plaza saltzeko aukera edukita, guri doan eskaini digute. Seinalea badakitela lanerako gogo bizian gaudela".

Eskerrak Txus Brizuelari, eskerrak Ondarreta taldeari, eta eskerrak Arrasate Kirolaki. "Eman duten laguntza ezinbestekoa izan delako saskibaloia gorakadan".

Datorren denboraldiko erronkari begira, bailarako jendearekin boro-bildu nahiko lukete taldea. "Bigarren mailan ondo ibiltzeko modukoa. Talde gogorren kontra jokatuko dugu, baina itzaropentsu gaude, partiduetan kiroldegia beteta ikusiko dugulakoan; denok elkartuta, Arrasateko saskibaloiak merezi duen tokira eramateko bidean".

Besaideren irteera

Besaide Mendizale Elkarteak irteera antolatu du iganderako; Leintz Bailarako III. Itzulia, hain zuzen ere.

Ibilaldia honako hau izango da: Arrasate, Kruzeta, Jarindo, Arlaban, Leizargarate, Aumategi, Degurixa, Urkulu, eta buelta Arrasatera.

Goizeko 7etan emango zaio hasiera Portaloian.

Euskadiko eskalada txapelketa


Larunbatean egingo da Bergaran Euskadiko Kirol-eskaladaren I. Txapelketa. Euskal Herri osotik etorritako berrogeitamar lagun inguruk hartuko dute parte bertan.

Goizeko 11etan emango zaie hasiera kanporaketei Labegaraietako kiroldegian. Aurrera egiten dutenek, 7.30etan jokatu dute finala, Seminarioaren fatxadan bereziki prestatuko den estrukturan aritu beharko direlarik.

Igeriketa txapelketa

Larunbat eta igandean, Gipuzkoako Igeriketa Klasikoaren Txapelketa antolatuko da Musakolako Kiroldegian, Arrasate Kirolak Igeri Taldearen ardurapean.

Guztira, Gipuzkoa osoko hogeitalde inguru bilduko dira bertan, Mondragoekoa bame. Probak goizeko 9.30etan eta arratsaldeko 5etan jokatu dira.



**ARANBURU
COTEMAR**

Garraio agentzia



Zaldipe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

ARTE LENIZ


**koadro eta
moldurak**

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

Sei gurpilekin bidaiian

Bidaiatzeko modurik onena, oraindik, oinezkoa da. Egokiena, merkeena, sanoena eta bisitatzen diren parajeaz jabetzeko apropose-na. Presaka ibili beharrak derrigor-tzen gaitu bidaiatzeko beste modu batzuk erabiltzera. Horien artean, onenaren hurrengoa bizikleta da. Hau ere sanoa, merkea eta egokia. Baina bizikletak ere baditu bere mugak, presarena -hemen ere- edo bidearen zailtasunena. Horrelakoe-tan badago beste aukera bat, bizikle-ta autoaren gainean hartu eta, txan-daka, lau edo bi gurpilez ibiltzeare-na, hain zuzen.

Bestelakorik pentsa daitekeen arren, aukera honek ez du konplika-zio handirik. Edozein auto bizikleta gainean eramana izateko gai da, merkatuan dauden tramankuluei esker. Hori bai, tramankulu horiek ondo aukeratu beharrekoak dira, ez



badugu behintzat arazorik izan nahi. Lehenik eta behin, bi barra ganoraz-koak behar ditugu, sendoak eta auto-ari ondo erantsiko zaizkionak. Gaur-ko autoek, aerodinamika dela eta, gero eta ertz gutxiago dute ezer eransteke eta horregatik behar da auto bakoitzari egokituko zaion si-stema aproposa. Barrak erostera-koan hobe da eskuzabal jokatzea, kontuan izanik gero barra horiei osagarri aproposak ezarri eta berdin

balioko digutela bizikleta, eskiak eta beste hainbat gauza eramateko.

Bizikleta garraiatzeko osagarri bereziak ezberdinak izan daitezke. Sistema batek bizikleta gurpilak gora dituela eramango du, jarlekutik eta manillarretik lotzen delarik. Bes-te batek, berriz, atzeko gurpila eta aurrekoaren horkila gatibatzen ditu, horretarako aurreko gurpila kendu behar delarik. Neuk oraingoan au-rrenekoa probatu dut eta ez abiadak ez bide bihurriek, ez didate sortu inongo arazorik.

Aldiz, gustoko parajeak autoari esker hurbildu zaizkidanean, bizi-kleta gainean dastatu ahal izan ditut, beste inola ere dastatu ezin diren bezala, patxadaz, hausnartuz, usain-duz, haizea aurpegian eta eguzkia kokotean sentituz, geldialdirako toki ederrena aukeratzeko paradaz...

Mikel Intxausti

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES

IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

egizabal

Bidekuretzeta 13,
BERGARA

Elisabete



ARRASATEko UDALA

Instalazio eta muntaia elektro-mekanikoei buruzko ikastaroa

- **Edukia:** Muntai Prozesuak.
Oinarrizko elektrizitatea.
Soldadura. Marrazki teknikoa, etab.
- **Destinatariak:** L.H.I. prestakuntz mailarekin dauden langabetuak, 18 urtetik gora.
- **Zentrua:** M.C.R.ren Pabiloi Industriala. Nafarroa Etorbidea.
- **Plazak:** 15.
- **Izen ematea eta matrikula:** 90-VII-12 arte.
- **Hasiera:** Uztailaren 16an.
- **Bukaera:** 1991ko apirilaren 30ean.
- **Ordutegia:** 8etatik 13.30etara.
- **Ikastaroaren iraupena:** 930 ordu.

Informazio eta matrikula

Arrasateko Udala. Enplegu dinamizatzailea. Tfnoa: 79 09 00 edota
Deba Garaiko Udal Enplegu Dinamizatzailearen bidez.

Gurasoak haurraren aprendizaiaren bitarteko

Aurreko artikuluan aztertu genuen garairi eutsiz, hezkuntz ez-formalarekin segituko dugu. Hezkuntz ez-formalari buruzko hausnarketa eginez gero, gurasoen paper hezitzailea etorriko zaigu gogora, gurasoak direlako, hain zuzen, haurraren lehendabiziko eredu. Baina esan beharra dago, eta gaurko teorikoez horrela diote, gurasoak haurrarentzat ispilu baino zerbait gehiago direla, "gurasoen jarrera haurrekiko" erabat determinatzailea delarik haurraren garapenean eta oro har aprendizairako.

Beraz, gurasoen ardura handia da, beraiek bait dira lehendabiziko urteetan haurraren aprendizaiaren bitarteko bakarrak. Beraien jarrera erreztatzaileari esker, haurrak bizi ahal izango ditu esperientzia bariatuak eta aberatsak, edo eta, horrela ez balitz, esperientzia hauek ukatu egingo dizkiote, bere bizi-esperientziak murriztuz eta honekin batera, aprendizai mugatuz.

Baina zertan datza jarrera hau? Haurra jaiotzen denetik, helduei esker bizi

ahal izango ditu aprendizairako mesedegariak diren esperientziak. Beraz, nolabait esateko, bere ondoan dagoen helduak, ama/aita, erraztu edo ukatu egingo dizkio aprendizairako behar beharrezkoak diren esperientziak. Adibide bat jartzeagatik, esan daiteke haurra, gurasoen laguntzari esker, konturatu ahal izango da objektua eskuratu dezakeela, hau da, seinalizazioaren esanahia jasoko du helduak esperientzia hori bizitzeko hainbat eta hainbat aukera eskaini diolako.

Hizkuntzaren inguruko adibide bat jarritz, Tough-ek honela dio: "Haur batzuk eskolara joaten direnean ez dute hizkuntzak eskaintzen dituen aukera guztiak aprobetxatzen, beraien gurasoek haurrari, horretarako behar dituen esperientziak posibilitatu ez dizkiotelako".

Orain arte haur txikiari buruz hitzegin badugu ere, beste horrenbeste gertatzen da haur gaztetxoarekin: zenbat eta aukera gehiago eskaini esperientzia berriak bizi ahal izateko, hainbat eta

aberatsagoa izango da bere aprendizai.

Hitz batez esateko, gurasoek bereganatu dezakete edo ez "aprendizaiaren bitarteko rola"; hau da, bihur daitezke haurraren aprendizaiaren erreztatzaile, eragile, gidari, interpretatzaile... edo eta alderantziz: ez -erraztatzaile, badakigu, bi muturreko jarrera hauek oso ondorio desberdinak izango dituztela beraien seme-alaben aprendizaiaren prozesuan. Lehendabizikoen seme/alabak, hau da, rola bereganatzen duten gurasoenenak, esperimintatzeko gogoia, kuriositatea, kreatibitatea... agertuko du. Bigarrenenak, aldiz, itxoin beharko du eskolara joan arte, edota gizartetik jaso arte, kasu onenean, derrigorrezko laguntza aipatutako ohiturak garatu ahal izateko.


Garbi utzi nahi dugu, bestealde, jarrera kontua dela eta ez jakinduriarena, eta pertsona heldu guztiak, nahiz eta inongo ikasketarik izan ez, badutela zer azaldu, zer kontatu, zertaz ohartarazi, zertaz eztabaidatu, zertaz hitz egin.

Klarion Taldea



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.

Tfnoak: 79-24 12 eta 79 99 58

20.500 ARRASATE

Alkohola eta nerabezaroa (II)

Inkestaturiko 987 ikasleetatik, %82,57ak alegia, noiz-bait kontsumitu du alkohola; 172 bakarrik dira (%17,43a) inoiz ez dutela dastatu diotenak.

Edan dutenen portzentaia mutilen artean nesken artean baino handiagoa da.

		MUTILAK		NESKAK	
ALKOHOLA PROBATU DUTE	BAI	490	%88,9	323	%74,5
	EZ	61	%11,1	111	%25,5
		551		436	

Geroxeago ikusiko dugunez, dastatu zuten guztiek ez dute edateko ohiturarekin segitu.

Urte gutxi zituztelarik edan zuten lehenengoz alkohola, eta honetan berdintsu dira neskak nahiz mutilak. Ge-

hienek batzbestek, 11 urterekin hasi ziren, eta kasu askotan 6, 7 eta 8 urterekin dastatu zutela esan zuten; beste batzuk, berriz, gutxienak, beranduago hasi ziren, hau da, 14, 15 eta 16 urterekin.

Talde handi batek etxean izan zuen alkoholarekin lehen kontaktua; zehatz esateko, familiarterako jaietan hasi zen mutilen % 62,04a eta nesken % 70,15a. Beraz, nabarmena da etxeko ohiturak eta jaiak kontsumo honen hasieran izandako eragina.

Gutxiago dira lagunekin edaten hasitakoak: mutilen arteko % 31,22a eta nesken arteko % 22,77a.

Nesken aldetik garbi dago txanpainerako zaletasuna, % 70arentzat hau izan bait zen lehenengo alkoholdun edaria; mutilek, berriz, % 45ak bakarrik kontsumitu zuten hau lehenengoz, eta gero garagardoa % 22ak, eta ardoa % 21ak.

Gutxitan erabili zituzten lehen dastaketa hauetarako likoreak edo gaur egun hain erabaliak diren nahasketa exotikoak. Eta aukera hauetan, sagardoa ageri da laugarren postuan, txanpaina, ardo eta garagardoaren atzetik.

Eukeni eta Arantxa



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentruak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldíspe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Gojain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74 AGURAIN

Hankamotz udaran ere mendira

Eusko Jaurlaritzak kirola sustatu nahian egindako planen barruan, Euskal Herriko Mendi Federakundeak zera proposatu zion. Uztailako lehenengo igandean Euskal Herriko mendi guztietan batedonbat izatea. Ideiak aurrera egin zuen eta puntu-ko argitaratu zen Euskal Mendien katalogoa. Guztira igogarriztat 650 mendi jotzen zituen eta erakunde edo pertsonen gain uzten zuen mendi bakoitzeko igoeraren antolamendua.

Beraz, nahi zuenak mendi bat "eska" zezakeenez puntuko ekin zioten lanari pertsona, eta erakundeek. Besaide Mendizale taldeak Udalaiz eskatu zuen eta bere gain izan ziren puntan utzi behar zen fitxa betetzea, hamabost argazki ateratzea eta denbora eta hainbat informazio gehigarriren zehaztapenaren ardura.

Jaso ziren bai argazkiak bai nondik nora ibilitakoak, baita hori egiten eman zen denbora ere.

Aipa daiteke Aramaioko mendi guztiak eta Murumendi gasteiztarrek hartu zituztela besteei aukerarik eman gabe. Baina orokorki Besaideko jendeak positibotzat jotzen dugu eguna. Urtero-urtero egin litekeen ohitura polita izan daiteke.

Deba Bailararen ibilaldia

Igande honetarako berriro ere antolatu du Besaidek Deba Garaiko Bailararen itzulia. Igandean goizeko zazpitan aterako da Portaloitik eta ez dago aurrez inon izena eman beharrik. Hau da, nahi duenak azaltzerik baino ez du, jarritako orduan.

Ibilaldiaren bidea hau da: Arrasate, Kurtzeta, Jarindo, Arlaban, Lei-

xargarate, Aumategi, Degurixa, Urkulu, Bedoña eta Arrasate. Guztira zortitik hamar ordu bitarteko oinezaldia, bainan argi!! Besaidek, joango diren guztiei hamarretako bikaina eskainiko die Leixargaraten, musu truke.

Eta urtetik urtera gauzak hobetu daitezkeenez, datorren urtean kontrolak ere egongo ei dira. Ederto!

Abuztuan Pirinioetan zehar

Datorren Hankamotzen artikuluan, hamabost egun barru, Iruñeko Anaitasuna taldeak, Pirineoetatik zehar antolatutako trabesiaren berri emango dizuegu. Dena den, norbaitek interesik balu, jo beza lehenbailehen Besaide Mendizaleen Elkartera.

Hankamotz

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

M A

ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA


I R A T I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ



Aste gazte

Zein atsegina eguzkiaren fereka goxoa azalean sentitzea!

Baina ez zaitetz horrekin konformatu, ipurdia altxa eta mugitu. Udarari, denbora alferrik galtzeaz gain, gauza asko egin daiteke.

Kanpamenduak

• Foresta '90: 16 eta 25 urte bitarteko gazteentzat, 15 egunetako kanpamenduak, Asturiasen. Abuztuaren (1. eta 2. hamabostaldietan). Helburua: natura eta oihanen ezagupena eta babesa. Doan. Asturiaseko Nekazaritza eta Arrantza Kontseilariak antolatuturik.

Bidaiak

• 26-urtetik beherako gazte edo 30 urtetik beherako ikasleentzat, Estatu Espainoleko irletarako (Palma de Mallorca, Ibiza, Menorca eta Canarias) bidaia subentzionatuak.

TIVEk (gazte eta ikasleen Turismo-Bulego Nazionala) antolatuturik.

• Honetaz gain, TIVEk antolatuturitu hainbat bidaia eta zirkuitu atzerititik zehar. Hegalaldi merkeagoak ere eskaintzen ditu (Paris, Erroma, Amsterdam, Frankfurt, Belgrado, Zagreb, Estambul, Londres, Dublin, Estatu Batuak...).

Lehiaketak

• "VI Basarri Saria" Bertsopaper-Lehiaketa (Zarautz). Bertsopaperak, gutxienez 8 bertsokoak izango dira. Gai librea. Sariak: 100.000 eta 50.000 pezetakoak. Lanak aurkezteko epea: uztailaren 17a arte.

• "Pasaia Hiria" Saria: Fanfarre, Banda eta Txarangentzat, kaleko Euskal Herri Musikaren I. Konposizio-Lehiaketa. Euskal Herriko musika-konposagileek parte hartu ahal izango dute. Bi atal: a) Erritmo tradizionalak. b) Euskal musikaren erritmo berriak. Sariak (atal bakoitzeko): 1) 200.000 pta., 2) 100.000 pta., 3) 50.000 pta. Lanak aurkezteko epea: Abuztuaren 15era arte.

Arteleku-ikastaroak

• Eskultura Tailerra: beira zun-

tza. Irailean, astelehenetik ostiralerara. Prezioa: 15.000 pta. Plaza mugatuak. Izen emateak: abuztuaren 24era baino lehen.

• Litografia Tailerra. Abuztuaren 1etik irailaren 28ra arte. Prezioa: 22.000 pta. Plaza mugatuak. Izen emateak: uztailaren 20ra arte (aukeraketa egingo da).

Antzerki-ihardunaldia


• Gazteentzako Egungo Antzerkiaren V. Ihardunaldia. Antzertu beharreko autoreak XX. mendekoak izango dira. Interpretazioa: euskaraz nahiz gaztelaniaz. Parte hartzaileen adina: 16 eta 30 urte bitartekoa. Aukeraturiko talde bakoitzak, ihardunaldian parte hartzeaz gain, 100.000 pta. jasoko du. Izen emateko epea: abuztuaren 31 arte.

Idazleak

• Olerkari Gazteen Elkartek idazteko zaletasuna daukuzuen guttiori dei egiten dizue zuen poemak, ipuinak, nobelak, etab. bidal diezazkiezuen, haiek argitaratzen duten "Gazeta Literaria"n argitaratzeko. Horren truke, doan bidaliko dizkizute aldizkaria.

Informazio gehiago:


Gazte Zerbitzuan, ☎ 77 00 65



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11



Fotokopiak
Enkuademazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerías 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

ETXEBIZITZAK

- Cambrils-en (Tarragona) apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.
- Torrevejan bungalow-a alokatzen da ekain, uztaile eta irailean. Tfnoak: 79 15 74 eta 79 30 47
- Loramendi kalean 6.pisua salgai 80 m2. Amuebletuta. Tfnoa: 79 24 89 (arratsaldez)
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da. Tfnoa: 79 45 74.
- Laredon apartamentua alokatzen da. Informazio gehiagorako deitu 79 52 80 tfnora.
- Neska ikasleak pisua behar dugu alokatzeko. Tfnoak: 72 11 43 Begoña, eta 55 45 35 Juana.
- Pisua alokatzen da Erguinen. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 40.000 pta. hilean. Tfnoa: 211225 10.00etatik aurrera.
- Alde zaharrean etxe merkea erosiko nuke. Dei goizez edo arratsaldez 77 09 40 tfnora.
- Neska ikasle talde batek alokatzeko pisua behar dugu Arrasaten. Harremanetan jartzeko deitu 69 08 19 tfnora.

LANA

- Gazte taldeak pinudiak garbituko lituzke edo antzekoak. Tfnoa: 79 97 84 Kazintxo
- Umeak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. M^a Jesus. Tfnoa: 79 99 17
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- 18 urteko gazteak udako hilabeteetan edozein lan egingo luke. Tfnoa: 79 51 95.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak 79 98 34 tfnora. deitu, arratsaldeko 13.00ak eta 16.00ak bitartean.
- Eskoriatzan klase partikularrak. Mailak: OHO kurtso guztiak. REM-BUP-UBI, euskarazko klaseak. Ek REM-BUP-UBI, euskarazko klaseak Ekaina, Uztaile, Abuztua. Arrazoiak: Tfnoa: 79 17 19. (20.00-22.00 ordu bitartean)
- 1 REM-IEE (euskara)eko neskatilari natur klaseak emateko pertsona behar da. Tfnoa: 79 39 49
- Andra, 40-50 urte bitartekoa, etxeko lanak egiteko behar da. Interna. Tfnoa: 79 16 63
- Gazte unibertsitari batek udako hilabeteetan OHO ikasten ari diren neska-mutikoei klaseak emango lizkieke. Tfnoa: 79 51 95
- Lizentziatuak klaseak emango lituzke: matematika, fisika eta kimika. REM, FP, BUP eta EGB. Tfnoa: 79 27 74

SALEROSKETAK

- Mobylette GAC baten paperak behar ditut. Baldin badituzu dei nazazu negoziatzeko. 79 97 69 Iban.
- Vespa 200 salgai. Tfnoa: 88 28 63. Aitor.
- R 12 egoera onean eta merkea salgai. Tfnoa: 79 17 21. Iñaki.
- BMW batentzako maletak erosiko nituzke. Tfnoa: 79 17 21. Iñaki.
- Hiru bizikleta salgai, bi 12 urteko neska-mutikoentzako eta bestea paseorako. Tfnoa: 79 55 22. Carolina.
- Camping-denda handia salgai. 2 logela, egongela eta portxea. Tfnoa: 79 55 22. Carolina.
- Camping-rako kotxe-erremolkea salgai. Tfnoa: 79 55 22. Carolina.
- Idaz makina salgai. Eskuan eramateko modukoa. Ia berria dago, ikasketak uzteagatik saltzen bait da. Tfnoa: 79 54 28. Leire.
- Camping-denda familiarra salgai (4 plaza), hozkailu txiki eta guzti. Deitu 79 24 66 tfnora.

DENETARIK

- Irungo ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin aldaketa egingo luke. Interesatuak dei dezatela tfno. honetara: 79 26 59
- Laudioko ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Durango-Arrasate inguruko ikastoletako irakasleren batekin aldaketa egingo luke. Tfnoa: 94- 681 40 25
- Tarota, kartak eta eskua irakurtzen ditut. Interesatuak dei Tfno. honetara: 76 50 58

ARRASATEN HILDAKOAK

Rosario Bilbao Recondo
Ekainaren 30ean. 88 urte

Juana Arizmendiarieta Landa
Uztailaren 1ean. 78 urte.

M^a Bordazar Larriberdi
Uztailaren 1ean. 89 urte

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Famauen ahotik

Benito Zubizarreta: Elgetan hartu najuan boletan eitteko afiziñue



Benito, Urribarrin kanpeonatu e irabazi auenien Hamaik urtekin lanien ekin

Hamaik urtekin eskolie itxi eta "Txai-kun" tallerien ekin nitzuan lanien. Astien hogetabat pezeta irebazi eta etxien entregatzen najuan. Baiñe pezetan bat naukenien bateonbatek propiñie emunde, segiruen Aizkoranera faten nitzuan pikuek erostera, pikuek gustatzen jatan asko eta "Piku" esaten justien, hi "Piku".

Gero hortik Arkarazora fan nitzuan, Pedro Letek fabrikatik gero zapatak eta abarkak arregletan eitten juan eta harekin.

Handik hurrengo Elgetara, han kargie ebalteko astuendako eta irixendako aldapa haundixe jauan eta niri eraitten justien. Bi urte eindre gero belaun bixetatik operaute egon nitzuan.

Elgetan ikesi boletan

Gero osatu nitzenien barriro Elgetan egon nitzuan beste baserri baten, Ojangurenien. Han bolatokixe jaukien eta boletan hantxe ekin nutzan, eurak siestan zaren artien nik boletan eitten najuan. Gero domeka atsaldetan azukoko mutiko danak juntau, txakurhaundi bana ipintten gaixuan eta gehixen jotzen zauenak beretako dana. Hantxe hartu najuan nik afiziñue boletan.

Herrixen bertan be betik izendok bolato-

kixe eta lehenengo aldiz hantxe Andramai-xa batzuetan durokuen berrehun duroko jokue atara najuan. Bolatokixetan apostak be izeten dittuk, bat ezetz, baten parra bi ezetz... Apostetan ezetza dok beti nausi.

Bolatokixek eitten

Soldauzkatik librau nitzuan, Altos Hornosen lanien ekin eta Boni Isasmendikin juntau nitzuan han. Boni Untzillakue dok eta bixon artien ein gaixuan; jaxietarako bolatokixe arreglau, tabernie ipiñi eta txopue sartu. Kriston ambientie ipintten giñuan jaxietan.

Gero Santomasetarako, Txispasek animaute, Gorosabel, Boni, Maskaiño eta lauron artien bolatokixe ein gaixuan Mondrauen.

Horixe zuan bolatoki internazionala, inder gutxikin be jo eitten zuan eta inder askokin be bai.

Hurrengo Bedoñan eta Urribarrin ein najuan bolatokixe.

Bolatokittik bolatokire aldie

Bolatokixe eitteko buziña, ohola, hiru txirlo eta bolie biok, eta euki daixela oholetik lehenengo txirlora hogetabat metro, hori dok reglamentukue eta txirluek metro beteko distentzian. Hala be, bolatokixetan bajak aldie, batzuk jo ezindeko moruen ipintten juek eta hori eztoz ona. Jentie egon dein eta afiziñue hartu deixen, betik ipiñi bihe jok lehenengokue joteko moruen.

Jasotako sarixek

Lehengo kanpeonatu e irebazi nauena Atxabaltako Portasolen izengo zuan eta parejatan Boni eta bixok Udalan atara gaixuan.

Etxien bajaukat, zortzi kopa, hiru txapel, Gernikako kuadrue eta beste kuadro bat ero beste be bai.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

Zelebrequerixak

Behin obra baten piontzan ziharduala Martin izeneko igeltsero bat andamiño puntatik jausi eta garbi geratu zan.

Martin hau ezkondua zan eta norbaittek andriai ezbiharran barrixa eruan bihar. Etzan eginkuzun gozua. Hau dala eta uezaba arduratan zeuan eta derrepente Fernando etorri jakon gogora.

- Hi, Fernando, mesede hauxe egingo bahostake... Bajaxixat lanian baiño habillagua haizela berbetan, eta esango hotsake Martiñen andriai pasau dana.

- Hori besteik ezpada, trankil egon. Kontuz kontuz esango dotsat eta gizona hil jakola esan barik pe entendiduko dau alargun gelditu dana.

Lanai laga eta joan zan andriana. Atia jo eta.

- Zu za Martinen andria?

- Bai, neu naiz; zer nahi dozu ba?

- Martiñen uezabak bialdu nau en-kargu bat emotera.

- Zeuk esangozu ba.

- Hara ba, zure Martini alkon-daria jausi ei jako andamiñotik bera.

- Hori da guztia? Hori esateko etziñuan honaiño etorri biharrik.

- Bai, baiña zure Martiñek alkon-daria al-dian zeroian.

♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦

Oharra: Berriz ere gogoratu sail honetako zelebrequerixa gehientsuak Juan San Martinen "Zirikadak" eta "Eztenkadak", eta Jon Etxaideren "Pernando Plaentxiatarra" liburutik hartuak eta moldatuak daudela.

Juan Martin Elexpuru

Felipe Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE


APOTZAGAN

S. Migel jatetxea

Egunero arratsaldeko

7etatik zabalik

Tfnoa: 77 04 94 / 79 83 93



Ulgor, 1957

Hasieran, 1955ean, Gasteizera joan ziren eta *Astec* (Asesoramientos Técnicos) sortu, petroliozko berogailuak egiteko asmoz. Urtebeteko esperientzia hura txarra izan zen - langile bat hil zitzairen, lan-istripuz besteak beste- eta 1956ko azaroaren 12an Mondragoen *Ulgor* enpresaren lehen harria jarri zuten. Egun hartan, Errepublikaren eguna, Unión Cerrajerako langileak gerra osteko lehenengo greba izan zuten.

1959ra arte ez zen kooperatiba bihurtuko. Hasieran *Tagor* marka komertziala atera zuten, geroago *Fagor* bihurtuko zena.

Argazkia Ulgorren bigarren pabilioia egiten ari zirenekoa da.

San Josepe ingurutik aterata dago. Eskuin aldeko etxea *Isazelai* etxea da. "*Base amerikanoa*" edo "*Amerikanoen etxea*" bezala ezagunagoa. Errepidea eskuinetik doa eta Aretxabaletarantz joanda, Ulgor pasatu eta gero, ezker aldean *Bolinete* errota dago eta eskuinean Akixutarren aroztegia. Ezkerreko

mendi lepotik Bedoña aldera joan daiteke eta eskuinekotik Murugainera. Urrutiaren erdi aldera, Kurtzebarriko mendiak.

Ibarra zeharkatzen, 1968ko abenduaren 31n itxiko zuten "*Mekolalde- Gasteiz- Lizarra*" trena.



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

GURUTZEGRAMA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1							█								
2						█									
3					█					█					
4							█				█			█	
5		█							█						█
6				█				█							
7					█						█		█		
8							█							█	
9				█				█							
10						█				█					

EZKER ESKUIN: 1.- Makaldu. Bihurtu. 2.- Jan opor. Hegazti harrapariak. 3.- Ezkina. Hosto. Sustraja. 4.- Musu. Mend., den. Infusio mota. Nitrogenoaren sinbolo kimikoa. 5.- Kontsonantea. Gorakada. Esaten. 6.- Gip., zain. Nahastura trinko. Arazotan sartu. 7.- Sail. Idazteko likido. Bokala. Ukatzeko. 8.- Zikiratu. Eki. Labaina. Kontsonantea. 9.- Joaki naiz. Joan den urtean. Itsas arrain preziatua. 10.- Bizkor. Urtaro. Garbitu.

GOITIK BEHERA: 1.- Ganaduzalea. 2.- Leku hartara. Txinarekin letu ohi den jaki. 3.- Burdinoletako langileak. 4.- "Ileak _____, zutitu". Ez txar. Bokala. 5.- Dauka. Anfibio mota. (errep.) Distira. 6.- Uranioa. Onetsia. 7.- Gramoa. Deialdi. Zaren hori. 8.- Ipar. Bart. Kontsonante errepikatua. Bostehun. 9.- Ibaia zeharkatzeko pasabide aproposa. Partea. 10.- Berrogeitamaika. Adoleszente. 11.- Areagotzeko partikula. Atzizki femeninoa. "___ denean, itxura duenez". 12.- Gutun-zorroak. 13.- Hegazkin. Zazpi bizitza dituen lehengo letra kendu egin diogu. 14.- Aparkatzeko zerga berezi hori. Sarrera. Kontsonante bikoitza. 15.- Izan. Zirkulu.

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzesiño kalea 4, behea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Bata ez zen ixiltzen; bestiari, hitzak kostata atera.
Bata eta bestia, beti elkarrekin.

Donostiako ostatu hartan topo egin zutenetik, istorio guztiak erdi bana. Amistadearen giltza.

Noizbait lagunen baten falta somatu, edozergatik, eta batak bazekien arrebak aspaldi oparitutako agendan telefono zenbaki bat aurkituko zuela zain; Donostiako lehen mozkorren amaieran zirriborraturiko telefono zenbakia.

Demonio, pozik sentitzen ziren, bai bata eta bai bestia. Halaxe konpartitu zituzten gaztaroko sekretuak, u-la, sexuaren munduan emandako lehen urratsak.

Ikusten genituen biak malekoian pasiatzen, igande arratsetan, eta ze inbidia. Bikote perfektoa ziruditen eskutik helduta.

Gaur, ordea, triste dago bata; bakarti, burumakur. Hainbeste oroitzapen ekartzen dizkion malekoian eserita.

Kaia aldera begiratzen badu, haitz galdu horietako batean bi figura somatuko ditu, elkarri izkutuko muxuak ematen.

Eta ezaguna, ezaguna egingo zaio neskatoak jantzita daraman jertsea.

Mila puskatan hautsitako bikote perfektoa.

Ramon

 **MIKEL LASA**
ASEGURU ARTEKARITZA

**ASEGURU
ARTEKARIA**

Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

■ **Teunisseren positiboa.** Gert Jan Teunissek positiboa eman du hirugarren aldiz denbora laburrean. Hirugarren hau jokatu berri den Eibarko Bizikletan eman du, hain zuzen, hirugarren atera zuen etapan. Antza denez, testosterona eman du kontrolan.

Panasonic etxeak, lehen PDMk egin zuen bezala, Teunissen gorputzak berez testosterona gehiegi egiten duela dio, hau da, kasurik gehienetan normala den baino gehiago. Horregatik Nazioarteko Txirrindulari Elkarteari holandarrari jarritako zigorrak kentzeko eskatu dio.

Horrelako zerbait entzun edo irakurtzen duzunean, zer pentsatu jakin gabe gelditzen zara, jakitun ez zarelako. Igande gauean, berriz, ETB1eko *Kirolez Kirok* ikusten ari ginenok Antton Gorrotxategi kirol-mediku euskaldunaren azalpenak entzuteko zoria izan genuen. Nik ez nuen Antton ezagutzen. Errezeloa dut, hori bai, Delgadok bere kasua izan zuenean orain bi urte, haren eritzia entzun nuela Euskadi Irratian, baina ez nago seguru.

Harrituta gelditu ginen telebista ikusten ari ginenok, zein ondo hitz egiten zuen euskaraz, batetik, eta zein erraz eta garbi azaltzen zituen arazo korapilotsu horiek: testosterona, epitestosterona, proteinak... Ez zuen modu arinean berbarik egin. Gizon zuhurra agertu zen beti. Berehala etorri zitzaidan burura gizon horrek telebistan eman lezakeen jokoa: gai horietan aditua, itxura onekoa, zuhurra, argia bere azalpenetan, eta irribarre errazekoa. Telebista-animalia edo akaso hobeto esanda, telebistako plaza-gizona. Zuzenean ari diren esatariek beren ondoan beharko luketen aholkulari horietakoa. Ederto Kirolezkirol eta bikain Antton Gorrotxategi.

■ **Tour-a Frantziatik Euskadi Irratian.** Euskadi Irratiak Tour-era erreportaria bat bidaltzeko baimena eskatu zuen eta, lehenengo aldiz, eman egin zaio. Iñaki Elortza euskaraz emateko eta Bilboko beste bat erdaraz, Iñaki Olaziregi teknikariarekin batera joan dira aumobilez, eta telefono mugikorrez hornituta.

Etapamajeretarako lineak eman zaizkie. Bukerak helmugatik emango dituzte, hortaz, gainontzeko komunikabideen ondorekin. Egutegiko etapa bakoitzaren azken ordua emango da. Orduz ordu konexioak egingo dituzte, erdietan.

Txirrindularitzak beti izan du pisu handia Euskadi Irratian. Oraingo honetan, munduko lasterketarik inportanteenak ere bere txokoa izango du, zuzeneko lekukotasunak aberastuta.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Night of the grizzly:** Igande arratsaldeko 3retarako, Joseph Pevney-ren pelikula. Antzezleak Clint Walker, Martha Hyer, Keenan Wyn.

Jim Cole legegizon erretiratu da. Lurren bat heredatzen du, eta bere senideekin batera hara bizitzera doa. Bertara heltzerakoan, ordea, hartz batek herri osoa belurduta duela jakingo du.


■ **Hasberriak:** Astearte gauean, 9.50etan, Julien Templek zuzendutako filmea. Antzezleak David Bowie, Eddie O'Connell, Patsy Kensit.

1985eko udan, Londoneko argazkilari batek zin egiten du bere gaztaroko azken urteak ondo baino hobeto pasako dituela, juerga itzelak eginez.

■ **Alkatrazko ihesa:** Donal Siegelren pelikula, asteazkenean, gaueko 9.50etan. Antzezleak Clint Eastwood, Patrick McGohhan, Robert Blossom.

Frank Morris Alkatrazera bidaltzen dute, hainbat espetxetatik ihes egin ondoren. Badirudi oraingoan ezinezkoa izango zaiola, baina heltzen den une beretik hasiko da hurrengo ihesa prestatzen.

bideoak



Robot industrialak

Ikuspuntu desberdinetatik aztertu da robotika gaia; eta oraingoan, makina soilaren deskripzioak egiteaz gain, makina horiek testuinguru batean kokatu dira. Hortaz, ikuspuntu teknologikoekin batera, teknologia-ren historia eta robotikaren lekutze industrialak aztertzen dira.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



Bilboko Arriaga antzokiko atarian geunden ETBko kamarak eta ATBkoak. **Jose Antonio Andartza** Lehendakariaren hitzak nahi genituen. Automobiletik irten eta bazihoan Gorordo eta bestelako agintarienganantz. Aguro zihoan. "Mesedez, hitz batzuk Arrasate Telebistarako!". Gelditu, burua jiratu eta "Arrasate Telebistakoak zarete?" galdetu. "Bai". "Itxoin" berak. Bilboko alkatea eta emaztea agurtu eta guregana etorri zen hitz batzuk esatera. Eskerrik asko.

Jende askok deitu zuen telefonoz *Zenbat buru, hainbat aburu* azkenaurreko mahaingurura, *Txanpa* dendak erregalatzan zuen irristolaren bila. Irabazlea **Idurre Amozarrain**, 10, izan zen. Munarrekoa da eta 4. maila ikasten ari da S. Frantzisko Xabier ikastolan. Zorionak!



Edinburgoraino joan zaigu **Begoña Garai Berriak** albistegiko beste aurkezlea, ingelesa lantzeraz. Uztail osoa emango du Begoñak Eskoziako hiriburuan. Bigarren aldia da Britainia Haundira doakigula. Iaz Ingalaterran izan zen. Begoñak ingelesa irakasten du S.Frantzisko Xabier Ikastolan. Postal bat gutxienez agindu digu. Thank you!

a s t e k o

PROGRAMAZIOA

9 ASTELEHENA

20.00 **Berriak**. Koldo Rodriguezek aurkeztua..
20.20 **San Juanak 90**. Igande arratsaldeko emanaldia
Berriak (errepikaldia)

10 ASTEARTEA

Azterketa eguna ATBn. Emanaldirik ez.

11 ASTEAZKENA

20.00 **Berriak**. Koldo Rodriguezek aurkeztua.
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**. Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: kanpoan bizi diren arrasatearrak.
Berriak (errepikaldia)

12 OSTEGUNA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
13.00 **San Juanak 90**. Ekainak 25, astelehen goizeko emanaldia.
20.00 **San Juanak 90**. Ekainak 25, astelehen goizeko emanaldia.

13 OSTIRALA

20.00 **Berriak**. Koldo Rodriguezek aurkeztua.
20.20 **Erretratoa**. J.R.Elortzak zuzendua. Gonbidatua: Juanito Leibar, EPPko irakasle eta Arrasateko historiadore.
20.50 **Muskantoi**. Asier, Pepe, Mikel eta Patxik egina. Euskal Herriko eta mundu zabaleko musika, programan bizienean.
Berriak (errepikaldia)

14 LARUNBATA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
12.50 **Muskantoi** (bezperakoa)



BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Arrazoiarekin edo arrazoi barik, benetan aste tristeia pasatuko duzu Aries. Onartu itzazu besteak zu zeu onartzen zaren eran eta ideiak argituko egingo zaizkizu. Zuhur jokatu diruarekin.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Bestekin mokoka ibiltzeak ez dizu onik ekariko. Oreak mentala lortzen saia zaitetz batez ere, ez zaitetz ibili noraezean. Behar duzun atsedena har ezazu lanean jarraitu ahal izateko.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Baliteke geldo sentitzea; erremediorik onena adikorra eta jasankorra izatea litzateke. Bere bide-tik zihola uste zenuen arazo hori okertzen hasi da baina lasai hartuko du berriz ere bere bidea.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Goiberaldiak ez dauka tokirik konpromezu laboralean Taurus, beraz onen-ona eginbeharrari aurre egitea litzateke. Baliteke larrialdiren bat pasatzea, nerbicen ondorio baino ez da izango.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Eziozu sortu istilunik ez etxean ezta lantokian ere. Umore txar hori askatzeko beste medioen bat bilatu beharko duzu. Datorren astea ez da batere atsegina izango Virgo, saiatu gehiago ez okertzen.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Laneko, familiarteko zein gainontzeko harremanak atera egingo dira bere onetik. Nahiko lan duzu guzti hori konpontzen eta gainera ez duzu laguntza handiegirik izango horretarako. Ez zaitetz erori etsipenean.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Gauzak ez doazkizu oso ondo, halaere ezizu etsi eta bere bidetik jarrai dezaten utziezu. Eziozu bola inori gertatzen ari zaizunaren errurik. Aurki etorriko da dena bere onera.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Eziozu egin kasorik besteek diotenari, zu zeu izaten jarraitu. Halaere inguruan lasaitasuna egon dadin ahalegindu zaitetz. Zeu izan beharko zara haserraldi horretan etsi beharko duena.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Maltzur jokatu eta ez laga ez inori ezta ezeri zu hunkitzen. Lantokian tirabirak suerta litezke, ez larritu horregaitik. Egoera gogorak baretzen saiatu eta denborarekin konponduko dira.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Makal egongo zara bai fisiko bai moral alde-tik, planeten egoera da nahasten zaituna Cancer. Besteak zuregan arreta jartzera derrigortu barik, eutsiozu goiari.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Argi ibili beharko zara aste honetan, batez ere inguruan daukazu jendearekin, baliteke gero benetan damutuko zaizkizun gauzak esatea eta. Ebitatu egoera gogorak. Zaindu itzazu jatorduak.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Zure eritziak momentu aproposenetan baino ez itzazu azaldu. Arazoak argitzeko mediorik izan ezean, ez nahasten baino ez zaitetz saiatu.



ARRASATEko UDALA

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udalak euskara ikasten ari diren arrasatearrentzat beka ematen ditu. Argibide gehiagorako dei 79 09 00 telefonora, edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

Arrasaten, 1990eko ekainaren 15ean

ANTZERKIA

Geroa:

“La piel prestada”

Uztailak 7, larunbata

Gaueko 10.30etan

MONTERRON Parkean

Sarrera: 500 pta.

Gazte Txartelarekin: 300 pta.



JAZZa

ROUND

TRIP

Uztailak 13 ostirala

Gaueko 10.30etan

MONTERRON Parkean

Sarrera: 300 pta.

Gazte Txartelarekin: 200 pta.

LES CAS\$E PIEDS

Rock jaialdia



Uztailak 14, larunbata


Gaueko 10.30etan

MONTERRON Parkean

SARRERA DOAN

(Eguraldia
txarra eginez gero ,
KIROLDEGIAN.
Sarrera: 200 Pta.)





Parrokiako elizpea

Musokolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek egina

V
E
C
T
R
A

Besteen amets eta nahiak
zuk gauzatu eta eskuratzeko aukera duzu.

*i Opel, inciz
baino hobea!*



BEREHALA
EMATEN DIRA

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena auzoa, z/g. Tfnoak. 76 33 44/45/46. BERGARA (Gipuzkoa)

Erakusketa Arrasaten: Loramendi, 2. Tfnoa. 79 05 86

DEBA ARRO, LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIRAKO KONTZESIONARIA

Kontseziolari ofizialak

OPEL 
Hobeak esperientziagatik